

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren erakundeak, aplikazioa behar bezala funtzionatzea eta erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskaintzea ahalbidetzen duten bazkide eta hornitzaileek osatzen dituzte. Lehenik eta behin, agente garrantzitsuenetako bat programatzaileak eta informatika-adituak dira; aplikazioaren garapena, mantentzea eta eguneratzea arduratzen direlako. Haien lanari esker, aplikazioak beste aplikazio batzuk blokeatu ditzake ikasketa denbora tartean, emergentzia deiak bakarrik baimendu, eguneroko antolaketa kudeatu eta VIP planaren zerbitzu aurreratuak eskaini (hau baita gure diru-sarrera nagusia).

Horrez gain, psikologoak eta osasun mentaleko adituak ere lankide ditugu, erlaxazio, kontzentrazio eta antsietatearen kudeaketarako teknikak diseinatu egiten baitute. Haien parte-hartzea funtsezkoa da, ongizate emozionalari buruzko edukiak segurutza eta ikasleentzat egokiak direla bermatzen dutelako. Irakasle eta ikaskuntza tekniketan adituak beharrezkoak dira ere, ikaskuntza-metodoak, denbora antolaketa, atsedenaldiak eta akademikoki laguntza sortzen laguntzen dute eta.

Bestetik, Google Play eta Apple Store, VIP zerbitzuaren ordainketak modu seguruan eta erraz kudeatzea ahalbidetzen dute. Plataforma hauei esker, proiektuak diru-sarrerak sor ditzake eta ekonomian iraunkorra izan daiteke.

Azkenik, estrategia-aliantza gisa hezkuntza zentroak eta orientatzaile eskolarrak izango dira, aplikazioa ikasleen artean zabaltzen lagundu eta zerbitzua ikasleen beharrei egokitzeko aukera emanaz.

Guztira, aliantza hauek negozio-eredua optimizatzea eta arrisku tekniko bai hezitzaileak murriztea ahalbidetzen dute, STUDY-SMARTER-en funtzionamendu egokia eta arrakasta bermatuz.